

2013ko AZAROAREN 12ko UDALBATZARRA
PLENO DE 12 DE NOVIEMBRE DE 2013

BERTARATUAK / ASISTEN:

BEHIN BEHINEKO ALKATEA / ALCALDE ACCIDENTAL: JON ABRIL OLAETXEA

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES Y CONCEJALAS:

FERNANDO BERASAIN GAINZA, NEKANE PEREZ IRAZABAL, GARAZI TABERNA TELLECHEA, JOSE MANUEL PORTU BERASATEGUI, ANDREA GOURAUD ALZUGARAY, UGAITZ ADO PRIETO, SANTIAGO ALZUGUREN MACHICOTE (5. puntuari), ISIDORA AGUIRRE UBIRIA.

IDAZKARIA / SECRETARIA: PILAR CHUECA INTXUSTA.

BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:

M^a SOL MARGARITA TABERNA IRATZOKI (oporrak / vacaciones), JUAN LOSA OCARIZ.

Tokia: BERAko Herriko Etxea

Eguna: 2013-11-12

Ordua: 19:35

Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia

Lugar: Casa Consistorial de BERA

Día: 12-11-2013

Hora: 19:35

Tipo sesión: ordinaria, 1^a convocatoria.

TRATATZEKO GAIK:

ASUNTOS A TRATAR:

1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-

1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-

2013.eko urriaren 25ean egindako bileraren akta ikusirik, aho batez, ONARTU DUTE.

Vista el acta de la sesión celebrada el día 25 de octubre de 2013, por unanimidad SE APRUEBA.

2.- SK2ko UE9ko XEHETASUN AZTERLANA (9. poligonoko 1. eta 9 lurzatiak, KAXERNA ZONALDEA) BEHIN BETIKO ONESTEA:-----.

2.- APROBACIÓN DEFINITIVA ESTUDIO DE DETALLE DE UE2-SK2 (parcelas 1 y 9, polígono 9, Zona Kaxerna):-----.

Idazkariak azaldu du gaia eta, aho batez, honako erabakia hartu dute:

Ikusirik, SK2ko UE9ko Xehetasun Azterlanaren espedientea (9. P, 1. eta 9. L, Kaxerna) -----k sustatua.-

Dokumentazioa: Behin betiko onespenerako Xehetasun Azterlanaren Testu Bateratua----- arkitektuak egina 2013ko irailekoa.

2013ko maiatzaren 6an Tokiko Gobernu Batzordeak Xehetasun Azterlan honi hasierako onespena eman eta behin betiko onspena egin baino lehen onartutako dokumentuaren testu bateratua aurkeztu behar zutela eskatu zien interesatuei.

Jendaurreko epean ez da alegaziorik aurkeztu eta eskatutako testu bateratua 2013ko irailaren 12an aurkeztu dute.

Ikusirik, Nasuvinsak 2012ko otsailaren 15 eta 2013ko martxoaren 8an, apirilaren 29an eta urriaren 2an eginiko txostenak eta Idazkaritzak 2013ko martxoaren 19an eta apirilaren 30ean eginikoak.

Hirigintza eta Lurraldearen Antolamenduari buruzko 35/02 Foru Legearen 74. eta 76. artikuluekin bat etorritz.

ERABAKI DUTE:

1) -----k sustatutako SK2ko UE9ko Xehetasun Azterlana, (9. P, 1. eta 9. L, Kaxerna), behin betiko onestea.

2) Behin-betiko onspen hau bai eta haien barreneko hirigintza arauak, ere, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3) Erabaki hau nahiz onartutako Xehetasun

La Secretaria explica el tema y, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Visto expediente del Estudio de Detalle en la UE9 del SK2 (P. 9, p 1 y 9, zona Kaxerna), promovido por-----.

Documentación: Texto Refundido del Estudio de Detalle redactado por el arquitecto----- para la aprobación definitiva- de fecha septiembre de 2013.

En fecha 6 de mayo de 2013 la Junta de Gobierno Local aprobó inicialmente este Estudio de Detalle y requirió a la parte interesada la presentación de un texto refundido del documento aprobado antes de proceder a la aprobación definitiva del mismo.

En el plazo de exposición pública no se ha presentado ninguna alegación y el texto refundido requerido ha sido presentado el 12 de septiembre de 2013.

Vistos informes realizados por Nasuvinsa de fechas 15 de febrero de 2012 y 8 de marzo, 29 de abril y 2 de octubre de 2013 y por Secretaría de 19 de marzo y 30 de abril de 2013.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 74 y 76 de la Ley Foral 35/02 de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

SE ACUERDA:

1) Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle en la UE9 del SK2 (P. 9, p. 1 y 9, zona Kaxerna), promovido por-----.

2) Publicar en el Boletín Oficial de Navarra esta aprobación definitiva, así como las normas urbanísticas contenidas en ella.

3) Trasladar este acuerdo junto con un ejem-

Azterlana honen ale bat eta emandako txosten teknikoak Nafarroako Gobernuko Sustapen Departamentuari bidaltzea.

4) Erabaki hau interesatuei jakinaraztea.

3.- UDAL BARATZEEN KONTZESIOA ETA ERABILERA ARAUTZEKO ORDENANTZA HASIERA BATEZ ONESTEA.

*Jose M. Portuk zera adierazi du:
Abstenitu behar dira, prozesu parte-hartzai-
learen alde baitaude eta Berako errealitatean
kokatua.*

*Jon Abrilek erantzun dio ez dutela proposatu
deus ere baina J. M. Portuk errepikatu dio
bai errana ziotela eta baita ere oraingo
erabiltzaileekin bilera bat egitea.*

*Idazkariak espedientearen prozedura azaldu
du.*

*Bozketa egina hauxe da emaitza:
Aldeko botoak: 4 (3 Aralar eta 1 EAJ/PNV).
Aurkakoak: 0.
Abstentzio: 4 (Bildu).*

Beraz, honako erabaki hartu dute:

Ikusirik, Beran udal baratzeen kontzesioa eta erabilera arautzeko Ordenantza.

Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 324., 325. eta 326. artikuluei jarraikiz.

ERABAKI DUTE:

1) Beran udal baratzeen kontzesioa eta erabilera arautzeko Ordenantza hasiera batez onestea.

plar del Estudio de Detalle aprobado e informes técnicos emitidos al Departamento de Fomento del Gobierno de Navarra.

4) Notificar este acuerdo a la parte interesada.

3.- APROBACIÓN INICIAL ORDENANZA REGULADORA DE LA CONCESIÓN Y USO DE HUERTAS..

*José M. Portu manifiesta lo siguiente:
Se van a abstener porque están a favor de un
proceso participativo y situado en la realidad
de Bera.*

*Jon Abril le contesta que no han propuesto
nada pero J. M. Portu insiste en que sí lo
habían comunicado y también el realizar un
reunión con las personas usuarias actuales.*

*La Secretaria explica el procedimiento del
expediente.*

*Realizada la votación resulta lo siguiente:
Votos a favor: 4 (3 Aralar y 1 EAJ/PNV)
Votos en contra: 0.
Abstenciones: 4 (Bildu)*

Por lo que adoptan el siguiente acuerdo:

Vista Ordenanza reguladora de la concesión y uso de huertas en Bera.

De acuerdo con lo establecido en los artículos 324, 325 y 326 de la Ley Foral de Administración Local.

SE ACUERDA:

1) Aprobar inicialmente la Ordenanza reguladora de la concesión y uso de huertas en Bera.

- 2) Ordenantza hau jendaurrean paratzea 30 egunez, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki oholean argitaratu eta gero, herriarrek eta bidezko interesa dutenek denbora horretan espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa eta oharrak jartzeko aukera izan dezaten.
- 2) Exponer al público dicha ordenanza, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento, por el plazo de 30 días para que los vecinos/as e interesados/as legítimos/as puedan examinar el expediente y formular reclamaciones, reparos y observaciones.
- 3) Erreklamazio, kexa edo oharrik aurkezten ez da lehen aipatutako epean, hasierako onespén hau behin betiko bilakatuko da. Kasu honetan, ondorio juridikoak sortzeko, gertaera hau, behin betiko testuarekin batera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.
- 3) Si no hubiera reclamaciones, reparos y observaciones en el plazo indicado en el punto anterior el acuerdo de aprobación inicial pasará a definitivo. En este caso, para la producción de efectos jurídicos, se publicará esta circunstancia, junto con el texto definitivo en el Boletín Oficial de Navarra.

4.- IBARDINGO BENTEK LUR PUBLIKOA OKUPATZEAGATIKO TASA HASIERA BATEZ ONESTEA, 2014.eko EKITALDIA.

Idazkariak azaldu du badirela Ibardingo Benta batzuk herri publikoa okupatzen ari direla eta horko lurren salmenta egin zenetik tasa kendua zela. Beraz, oraingoei kobratu ahal izateko berrir ezarri behar dela eta tasa kalkulatzeko lehengoa PKIrekin eguneratua eta sotoei horren %60a proposatu zela Gobernu Batzordean.

Hori dela eta, aho batez, honako erabakia hartu dute:

Ikusirik, 2014.eko Tasak eta Prezio Publikoen tarifak aldatzeko espedientea.

Joan den irailean eginiko osoko bilkuran 2014.eneko ekitaldian aplikatu behar diren tasak hasiera batez onartu zituen Udalak.

Ez geroztik, Udala konturatu da Ibardingo Bentek lur publikoa okupatzeagatiko tasa ez zegoela onartu zituztenen artean.

4.- APROBACIÓN INICIAL TASA POR OCUPACIÓN DE TERRENO PÚBLICO POR LAS VENTAS DE IBARDIN, EJERCICIO 2014.-

La Secretaria explica que hay algunas ventas en Ibardin que ocupan terreno público y que la tasa por ocupación se había quitado desde que se realizaron las ventas de terrenos. Por lo que para cobrar a los actuales ocupantes hay que establecer, de nuevo, dicha tasa y para su cálculo se ha actualizado la anterior con el IPC y para los sótanos se ha propuesto en la Comisión de Gobierno un 60%.

Así, por unanimidad, se adopta el siguiente acuerdo:

Visto expediente de modificación de las tarifas de las Tasas y Precios Públicos para 2014.

En el Pleno celebrado el pasado mes de septiembre se aprobaron inicialmente las tasas a aplicar en el ejercicio de 2014.

Posteriormente, el Ayuntamiento se ha dado cuenta que, entre las tasas aprobadas, no se encontraba la tasa por ocupación de terreno público por las Ventas de Ibardin.

Kontuan hartuz, Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325. artikulua eta Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 13. artikulua xedatzen dutena.

Teniendo en cuenta lo establecido en el artículo 325 de la Ley Foral 6/1990 de Administración Local y en el artículo 13 de la Ley Foral 2/1995 de Haciendas Locales.

ERABAKI DUTE:

SE ACUERDA:

1) Ibardingo Bentek lur publikoa okupatzeagatik tasak, hasiera batez aldatzeko onartzea, honakoak izanik:

1) Aprobar inicialmente las tasas por ocupación de terreno público por las Ventas de Ibardin, siendo las siguientes:

- Lur publikoa okupatzeagatik azaleran eta bueloan: 11,18 euro/eraikitako m².

- Tasas por ocupación de terreno público en superficie y vuelo: 11,18 euros/m² construido.

- Lur publikoa okupatzeagatik sotoekin: 6,70 euro/eraikitako m².

- Tasa por ocupación de terreno público en Ibardin por sótanos: 6,70 euros/m² construido.

2) Tasa hau jendurrean paratzea 30 egunez, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki oholean argitaratu eta gero, herritarrek eta bidezko interesa dutenek denbora horretan espedientea aztertzeko aukera izan dezaten.

2) Exponer al público dichas tarifas, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, por el plazo de 30 días para que los vecinos e interesados legítimos puedan examinar el expediente.

3) Erreklamazio, kexa edo oharrik aurkezten ez bada lehen aipatutako epean, hasierako onepen hau behin betiko bilakatuko da. Kasu honetan, ondorio juridikoak sortzeko, gertaera hau, behin betiko testuarekin batera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

3) Si no hubiera reclamaciones, reparos y observaciones en el plazo indicado en el punto anterior el acuerdo de aprobación inicial pasará a definitivo. En este caso, para la producción de efectos jurídicos, se publicará esta circunstancia, junto con el texto definitivo en el Boletín Oficial de Navarra.

4) Behin betiko onepenaren ondoren, Nafarroako Gobernuaren Ordenantza Fiskalaren Erregistrora aldaketa hauek bidaltzea.

4) Una vez realizada la aprobación definitiva, remitir estas modificaciones al Registro de Ordenanzas Fiscales del Gobierno de Navarra.

4. puntua bukatzean Santiago Alzuguren

Al finalizar el punto 4º se incorpora a la

zinegotzia bertaratu da.

5., 6. eta 7. puntuen gaiak berdinak direnez Bortziritako 3 Mankomunitateen Estatutuak aldatzea arrazoi berarengatik, langileen funtzionarizatzeari, batera eztabaidatu eta bozkatu dira.

*Santiago Alzugurenek zera dio:
Abstenitu behar dira, haien ustez, hau erabaki baino lehen Bortziritako Mankomunitateen kopurua aztertu egin behar da.*

*Nekane Perez:
Aztertu beharra ez du kentzen funtzionarizazioaren prozesua orain egin ahal izatea.*

*Beraz, bozketa egin haxe da emaitza:
Aldeko botoak: 7 (3 Aralar eta 4 Bildu).
Aurkakoak: 0.
Abstentzio: 2 (EAJ/PNV).*

Hori dela eta, 7 aldeko botoekin, legeak eskatutako gehiengo osoa izanik, honako erabakiak hartu dituzte:

5.- BORTZIRIETAKO HIRI-HONDAKINEN MANKOMUNITATEAREN ESTATUTUEN ALDAKETA ONESTEA.

Ikusirik, Bortziritako Hiri-Hondakinen Mankomunitateak bidalitako dokumentazioa, Estatutuen 37. artikulua aldatzekoari buruzkoa, Udalak onar ditzan.

Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 50.1.5^a artikuluari jarraikiz.

Gehiengo osoz, ERABAKI DUTE:

1) Bortziritako Hiri-Hondakinen Mankomunitateak pasa den uztailaren 15ean onaritutako Estatutuen aldaketa, 37. artikuluarena, onestea.

sesión el concejal Santiago Alzuguren.

Como los temas de los puntos 5, 6 y 7 son iguales, la modificación de los Estatutos de las 3 Mancomunidades de Bortziriak por la misma razón, la funcionarización del personal, se deliberan y votan al mismo tiempo.

*Santiago Alzuguren manifiesta:
Se van a abstener porque, en su opinión, antes de tomar esta decisión se debería analizar el número de mancomunidades que hay en Bortziriak.*

*Nekane Pérez:
La necesidad de análisis no quita que ahora se pueda realizar el proceso de funcionarización.*

*Por lo que, realizada la votación resulta:
Votos a favor: 7 (3 Aralar y 4 Bildu)
En contra: 0.
Abstenciones: 2 (EAJ/PNV).*

De este modo, por 7 votos a favor que alcanzan la mayoría legalmente exigida, se adoptan los siguientes acuerdos:

5.- APROBACIÓN MODIFICACIÓN ESTATUTOS MANCOMUNIDAD DE RESIDUOS SÓLIDOS URBANOS DE BORTZIRIAK.

Vista documentación sobre modificación del artículo 37 de los Estatutos remitida por la Mancomunidad de Residuos Sólidos Urbanos de Bortziriak para su aprobación por el Ayuntamiento.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 50.1.5^a de la Ley Foral 6/1990 de Administración Local.

Por mayoría absoluta, SE ACUERDA:

1) Aprobar la modificación del artículo 37 de los Estatutos aprobada el pasado 15 de julio por la Mancomunidad de Residuos Sólidos Urbanos de Bortziriak.

2) Erabaki hau Bortzirietako Hiri-Hondakinen Mankomunitateari bidaltzea.

2) Trasladar este acuerdo a la Mancomunidad de Residuos Sólidos Urbanos de Bortziriak.

6.- BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEAREN ESTATUTUEN ALDAKETA ONESTEA.

APROBACIÓN MODIFICACIÓN ESTADUTOS MANCOMUNIDAD DE EUSKERA DE BORTZIRIAK.

Ikusirik, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak bidalitako dokumentazioa, Estatutuen 29. artikulua aldatzekoari buruzkoa, Udalak onar ditzan.

Vista documentación sobre modificación del artículo 29 de los Estatutos remitida por la Mancomunidad de Euskera de Bortziriak para su aprobación por el Ayuntamiento.

Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 50.1.5^a artikuluari jarraikiz.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 50.1.5^a de la Ley Foral 6/1990 de Administración Local.

Gehiengo osoz, ERABAKI DUTE:

Por mayoría absoluta, SE ACUERDA:

1) Bortzirietako Euskara Mankomunitateak pasa den ekainaren 18an onartutako Estatutuen aldaketa, 29. artikulurena, onestea.

1) Aprobar la modificación del artículo 29 de los Estatutos aprobada el pasado 18 de junio por la Mancomunidad de Euskera de Bortziriak.

2) Erabaki hau Bortzirietako Euskara Mankomunitateari bidaltzea.

2) Trasladar este acuerdo a la Mancomunidad de Euskera de Bortziriak.

7.- BORTZIRIETAKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEAREN ESTATUTUEN ALDAKETA ONESTEA.

7.- APROBACIÓN MODIFICACIÓN ESTADUTOS MANCOMUNIDAD DE SERVICIOS SOCIALES DE BORTZIRIAK.

Ikusirik, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak bidalitako dokumentazioa, Estatutuen 30. artikulua aldatzekoari buruzkoa, Udalak onar ditzan.

Vista documentación sobre modificación del artículo 30 de los Estatutos remitida por la Mancomunidad de Servicios Sociales de Bortziriak para su aprobación por el Ayuntamiento.

Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 50.1.5^a artikuluari jarraikiz.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 50.1.5^a de la Ley Foral 6/1990 de Administración Local.

Gehiengo osoz, ERABAKI DUTE:

Por mayoría absoluta, SE ACUERDA:

1) Bortziritako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Juntak pasa den ekainaren 5ean onartutako Estatutuen aldaketa, 30. artikulua, onestea.

2) Erabaki hau Bortziritako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari bidaltzea.

8.- BERAKO LIBURUTEGIKO LANPOSTUA BETETZEKOARI BURUZ JARRITAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIAREN EPAIA.

Berako Liburutegiko Lanpostua betetze-koari buruz Berako Udalak jarritako Administrazioarekiko auziaren epaiaren jakinaren gainean gelditu dira.

9.- "EPAIKETA POLITIKO GEHIAGORIK EZI" MOZIOA.

Garazi Tabernak irakurri du testuaren mozioa, horren ondoren, aho batez onartu dute honako testu hau izanik:

Datorren urriaren 14an eta 17an hamarnaka Euskal Herritarren aurkako epaiketa hasten da Espainiako Entzutegi Nazionalan. Azken urteetan zain egon ondoren, batzuen kasuan gainera hamar urte baino gehiago, epaiketa azken urratsera heldu da.

Urteetako ibilbideak argi eta garbi erakutsi du, salbuespeneko legeriaren itzalean, lan politikoa egiten ari ziren euskal herritarrak zigortu dituztela. Ehunka izan dira herri honetan, hauteskundeetan parte hartu nahi izateagatik, herri proiektuak aurrera ateratzen lana egiteagatik, sektore desberdinen kezka bere egin eta politikoki erantzuteagatik auziperatu eta kartzelaratu dituztenak.

Euskal Herrian, konponbide eta bake hai-

1) Aprobar la modificación del artículo 30 de los Estatutos aprobada el pasado 5 de junio por la Junta de la Mancomunidad de Servicios Sociales de Bortziriak

2) Trasladar este acuerdo a la Mancomunidad de Servicios Sociales de Bortziriak.

8.- SENTENCIA SOBRE RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO SOBRE PROVISIÓN DE PUESTO DE TRABAJO DE ENCARGADO/A DE LA BIBLIOTECA DE BERA.

Quedan en conocimiento de la sentencia sobre el Recurso Contencioso-Administrativo sobre la provisión del puesto de trabajo de encargado/a de la Biblioteca de Bera.

9.- MOCIÓN "NO MÁS JUICIOS POLÍTICOS"

Garazi Taberna lee la moción, tras lo cual, por unanimidad, la aprueba siendo el texto el siguiente:

Los días 14 y 17 de octubre, comienza en la Audiencia Nacional española dos macrojuicios en contra de decenas de ciudadanos vascos. Tras una demora que se ha alargado hasta diez años en algunos casos.

Con el transcurso de los años, ha quedado en evidencia que las leyes de excepción buscan castigar a ciudadanos vascos por su trabajo político. En este pueblo, son cientos los ciudadanos vascos que han sido encarcelados o encausados por querer participar en las elecciones, por trabajar en favor de proyectos de pueblo, por hacer suyas las preocupaciones de diferentes sectores y responder a ellas con su trabajo político.

En el actual contexto que vive Euskal Herria,

zea indartsu dabilen honetan, iraganeko egoeretara itzultzerik ez du onartzen gizarteak. Sufrimendu fasea gaintitu eta elkarrizketa, akordioa eta aukera politiko guztiekiko errespetua oinarri izango duen egoera behar dugu. Eta kontrako norabidean ematen diren urratsak baztertu egin behar direla argia da

Datorren urri honetarako aurreikusita dauden bi epaiketa hauek, eta jarraian burutuko direnak testuinguru berean emango direla kontutan hartuta, garai berria zabaltzeko Euskal Herriak agertu duen erabakiari eraso egiten diete, konponbide baketsua blokeatzeko asmoz.

Hau guztia kontutan hartuta, udal honek honako erabaki hau hartzen du:

- Ez daitezela epaiketa politiko gehiagorik egin;
- Eskandaluzko instrukzio bidegabean oinarritutako epaiketa guztiak artxiba daitezela;
- Prozedura judizial guztietatik etsaiaren zigor zuzenbidearen aplikazioa desager dadila;
- Aniztasun politikoa eta elkartzeko, adierazpen nahiz askatasun politikorako funtsezko eskubideak baldintzarik gabe errespetatu daitezela;
- Elkarbizitza demokratikorako oinarri sendoak ezar ditzagula.

10.- “EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNERAKO” ERAKUNDE ADIERAZPENERAKO PROPOSAMENA.

*Jon Abrilek zera dio:
Gaur ailegatu dela horri buruzko mozioa Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak bidalia.*

con vientos que impulsan hacia la resolución y la paz, la sociedad no acepta volver a escenarios del pasado. Debemos superar la fase del sufrimiento y dar pie un escenario de diálogo, acuerdo y respeto a todas las opciones políticas. Por lo tanto, rechazamos totalmente acciones contrarias a buscar este escenario.

Los dos juicios previstos para el mes de octubre, así como otros pendientes de celebración, los enmarcamos como un ataque a la voluntad que Euskal Herria ha expresado para abrirse al nuevo tiempo, en un claro intento de bloquear una solución pacífica.

Por ello, desde este Ayuntamiento tomamos esta decisión:

- Que ya no se celebren más juicios políticos;
- Que se sobreesan todos los juicios basados en flagrantes, arbitrarias y escandalosas instrucciones judiciales;
- Que desaparezca de los procesos judiciales la aplicación del derecho penal del enemigo;
- Que se ejerza el respeto incondicional al pluralismo político y a los derechos fundamentales de asociación, libertad ideológica y de expresión;
- Que sentemos unas bases sólidas de convivencia democrática.

10.- PROPUESTA DE DECLARACIÓN INSTITUCIONAL “DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES”.

Jon Abril comenta que hoy ha llegado la moción sobre este tema remitida por la Mancomunidad de Servicios Sociales.

Nekane Perezek:

Gaur bidalitakoa motzagoa da, bereziki, ekitaldian jendaurrean hobe irakurtzeko. Deialdia azaroaren 24an, 13:00etan izanen da.

Baita ere aipatu dute, berriki, Beran izan omen dela emakume baten kontrako indarkeriaren gertaera.

Hori dela eta, aho batez, onartu dute mozioa eta, aldi berean, Beran gertatutako emakumearen aurka izandako indarkeria salatzea.

Hartutako erabakia:

1) Mozioaren testua:

Azaroaren 25a “Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna” dela-eta, EHBilduko kideok azpimarratu nahi dugu alor horretan behar-beharrezkoa dela politikari eta herritarren adostasunean eta konpromisoan sakontzea, eta hortik abiatuta, batera bizitzeko guneak sortzea, non emakumeek, azkenean, indarkeria matxistatik aske bizitzeko aukera izango duten. Gure ustez premiazkoa da helburu horrek lehentasunezko eta etengabeko tokia izatea bizitza kolektiboa antolatu eta kudeatzeko ardura duen edozein erakunde publikoren agenda politikoa.

“Hiru gaztek 17 urteko adingabe bat bortxatu dute Egia auzoan”, “neska gazte batek sexu-erasoa pairatu du Ibarako jaietan”, “polemika San Ferminetan, sexu-erasoen gorakadaren ondorioz”, “Laudion gizon batek emaztea erail du”, “neska gazte batek sexu-erasoa pairatu du Irurako jaietatik etxera itzultzean” “emakume batek Urumea ibaira bota du bere burua, bikotekidearen heriotzamehatxuetatik ihes egiteko” “Irunen emakume batek aiztoa sartu dio mutil-lagunari, haren erasoetatik defendatzeko”...

Indarkeria matxistaren alderik gordinena

Nekane Pérez:

La remitida hoy es más corta, principalmente, para facilitar la lectura pública en el acto. La convocatoria es para el día 24 a las 13:00 horas en la Plaza de Alzate.

También comentan que, recientemente, parece ser que ha habido un acto de violencia contra una mujer en Bera.

Por todo lo anterior, por unanimidad, aprueban la moción y, al mismo tiempo, denuncian el acto de violencia de género ocurrido.

Acuerdo adoptado:

1) Texto de la moción:

Con motivo del 25 de noviembre, “Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres” desde EHBildu queremos visibilizar la necesidad de profundizar en el acuerdo y compromiso político y ciudadano para poder caminar hacia espacios de vida en común en los que las mujeres puedan, por fin, vivir vidas libres de violencia machista. Entendemos que este objetivo debe estar de manera urgente, prioritaria y permanente en la agenda política de cualquier institución pública responsable de organizar y gestionar la vida colectiva.

“Violación de una menor de 17 años por tres jóvenes en el barrio de Egia”, “intento de agresión sexual a una joven en fiestas de Ibarra”, “polémica en San Fermín por el aumento de agresiones sexuales”, “asesinada en Llodio por su pareja”, “agresión sexual a una joven al regresar a casa tras estar en fiestas de Irura” “una mujer se ha lanzado al río Urumea para huir de las amenazas de muerte de su pareja” “una mujer, en Irun, se ha defendido de las agresiones de su compañero sentimental clavándole un cuchillo”...

Ésta es la parte más brutal de la violencia

hori da, jendeak ikusten eta ezagutzen duena. Alabaina, indarkeria matxistak askotariko aurpegi eta adierazpenak dauzka, eta emakume guztiei eragiten die bizitza osoan zehar, gazteei, zaharrei, etorkinei, sexu-lan-gileei, politikariei, bankariei edo superreko kutxazainei. Indarkeria matxista etxeetan nozitzen dute emakumeek, baina baita eremu publikoetan ere, mota eta intentsitate desberdineko hainbat portaera matxista eta bortitzen bitartez.

Ikuspegi horretatik begiratuta, eraso matxistak ez dira gizon gutxi batzuen jokabide soilak, emakumeen eta gizonen elkarrekiko bizitza antolatzeke eraikitako eredu baten parte baizik, emakumeei denbora kentzean eta emakumeen gorputza, afektuak eta lana gizonen zerbitzuan jartzean oinarritu dena. Eredu horrek berez legitimatzen du egoera hau, emakume eta gizonen arteko desberdintasunei esker, eta neurri handiagoan edo txikiagoan baimentzen du emakumeen aurkako indarkeria.

Aldi berean uste dugu indarkeria ez litza-tekeela indarrean egongo indarkeria hori justifikatzen, legitimatzen eta ahalbidetzen duten gizarteratze-bitarteko jakin batzuk indarrean egongo ez balira. Izan ere, bitarteko horiek ahalbidetzen dute indarkeria, kontzienteki edo inkontzienteki, bidezko-tzat, beharrezkotzat edo saihestezintzat jotzea. Ildo horretan, erlijioak, hizkerak, komunikabideek, familiak eta hezkuntzak zeresan handia dute indarkeria iraunarazten laguntzen duen gizarteratzean.

Ikuspegi horretatik, emakumeok indarkeria matxistatik aske bizitzeko bermean aurrera egiteko, gure lana eta gure estrategiak honako hauetan oinarritu behar dira:

- Emakume eta gizonen arteko egiturazko

machista que se ve y se conoce. Pero nos enfrentamos a una violencia machista con múltiples caras y expresiones que afecta a todas las mujeres a lo largo de todas sus vidas, sean jóvenes, mayores, migrantes, trabajadoras sexuales, políticas, banqueras o cajeras de súper. Una violencia machista que se ejerce en los hogares pero también en los espacios públicos y que se manifiesta a través de distintos comportamientos violentos y machistas de distinto tipo e intensidad.

Desde esta perspectiva, los ataques machistas no se explican por conductas aisladas de algunos individuos, sino que son parte de un modelo de organizar la vida juntas y juntos construido sobre la base de la expropiación del tiempo, el cuerpo, los afectos y el trabajo de las mujeres al servicio de los hombres. Este modelo, en sí mismo, legitimador y sostenido gracias a la existencia de las desigualdades entre mujeres y hombres va a permitir un clima de mayor o menor permisividad en el ejercicio de la violencia contra las mujeres.

Asimismo, entendemos que la violencia no sería posible sin unos mecanismo de socialización que la justifican, la legitiman y la hacen posible, posibilitando que la violencia se interprete consciente o inconscientemente como justa, necesaria o inevitable. De esta manera, la religión, el lenguaje, los medios de comunicación, la familia y la educación se erigen como una parte importante de los mecanismos de socialización que contribuyen a perpetuar la violencia.

Desde esta perspectiva, el trabajo y las estrategias para avanzar en la garantía de que las mujeres podamos vivir vidas libres de violencia machista deben guiarse por:

- Abordar la desigualdad estructural entre

desberdintasunari heltzea, indarkeria matxistaren aurkako borrokarako funtsezko ardatzetako bat den heinean. Egiturazko indarkeria horri aurre egiteko neurri asistentzial, juridiko eta polizia-ak soilik erabiltzen baditugu, ordea, ez dugu aurrera egingo.

- Indarkeriaren askotariko adierazpen eta toki ugarietara hedatzea gure begirada. Tratu txarrak eta sexu-erasoak indarkeria dira, bai, baina espazio publikoan gertatzen dena ere indarkeria da: intentsitate txikiko indarkeria esaten zaio, eta esaterako, begirada edo komentario iraingarrien bidez adierazten da, edota toki jakin batzuetan eta ordu jakin batzuetan askatasunez ibiltzeko, emakumeek “babesa” —eta ahal dela gizonen “babesa”— eduki behar izatea normalizat jotzen denean. Ildo horretan, indarkeria matxistaren aurkako politikek malguak izan behar dute, testuingurura, indarkeria matxisten aniztasunera eta emakumeen aniztasunera egokitzeko modukoak (dibertsitate funtzionala, etorkinak, gazteak, drogazaleak eta abar).
- Kultura-adierazpen eta -fenomeno diskriminatzaileen aurka borrokatzea, eta halakotzat jotzen ez badira ere, indarkeria matxistari legitimitate soziala ematen dioten fenomeno soziokultural eta sinboliko jakin batzuk indarkeria matxistaren adierazpentzat jotzea.
- Emakumeek eta gizonen nola jardun behar duten arautzen duten arau sozialak urratzen dituzten taldeen aurkako bestelako indarkeria matxistak —hala nola transfobia, lesbofobia edo homofobia— ikusaraztea, prebenitzea eta indarkeria horri erantzutea.
- Indarkeria matxistan duten protagonismoari buruz gogoeta egitera bultzatzea gizonezkoak: zer den eraso eta zer ez den bereizteko zailtasunak dituztenean, erasoetan zuzenean parte hartzen

mujeres y hombres como un eje fundamental de la lucha contra la violencia machista. No avanzaremos en tanto en cuanto abordemos esta violencia estructural desde medidas puramente asistenciales, judiciales y policiales.

- Ampliar la mirada sobre las diversas y múltiples manifestaciones de la violencia, así como sobre los espacios en las que se produce. Son violencia los malos tratos y las agresiones sexuales, pero también es violencia aquella que se da en el espacio público: la denominada violencia de baja intensidad, que se expresa, por ejemplo, a través de miradas o comentarios ofensivos; o cuando se considera como normal que las mujeres tengamos que ir “escortadas” preferiblemente por hombres para poder caminar libremente por algunos lugares a determinadas horas. En este sentido, las políticas contra la violencia machista deben ser flexibles y adaptables al contexto, a la diversidad de las violencias machistas y a la diversidad de las mujeres (diversidad funcional, migrantes, jóvenes, drogodependientes, etc.).
- Luchar contra las expresiones y fenómenos culturales discriminatorios; y nombrar como violencia machista a fenómenos socio-culturales y simbólicos que no son considerados como tales, y sin embargo, son elementos que dotan de legitimidad social el ejercicio de la violencia machista.
- Visibilizar, prevenir y responder de manera urgente a otras formas de violencia machista, como la transfobia, lesbofobia, o la homofobia que sufren los cuerpos que transgreden las normas sociales que rigen cómo deben ser las mujeres y los hombres.
- Impulsar que los hombres reflexionen y se planteen su protagonismo en la violencia machista: sus dificultades para identificar qué es una agresión y qué no, su participación activa en las mismas, así como su

dutenean, eta erasoak gaitzetsi arren, erasoen ikusle pasibo soilak direnean.

papel como mero espectador pasivo de una agresión, pese al rechazo de ésta.

Horregatik guztiagatik, udal honek honako konpromiso hauek hartu ditu:

Por todo ello, este Ayuntamiento asume el compromiso de:

- **Berdintasun-politikak garatzeko baliabideak (giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak) urtetik urtera indartzea.**
- **Parte-hartzean oinarritutako prozesuak abian jartzea edo bultzatzen jarraitzea, jai-giroko erritu sinbolikoetan eta eremu soziokultural guztietan emakumeen parte-hartzea sustatzeko.**
- **Emakumeen ahalduntzea sustatzeko eremu komunak sortzea eta/edo baliabideekin indartzea: ahalduntzeko eskolak, emakume-etxeak eta haiek sarean antolatzeta. Hau da, emakumeei bultzada ematea, banaka zein taldeka, desberdintasunei, kalteberatasunari eta indarkeria matxistari aurre egiteko behar dituzten tresnak eskura eduki ditzaten.**
- **Beste udalerrri batzuekin elkarlanean hastea edo parte hartzen jarraitzea sare-programen bitartez abian jarritako eremu kolektiboetan, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen Berdinean programan adibidez. Programa horien arabera, udalek dirua jarri behar dute emakumeen aurkako (eta bereziki emakume gazteen aurkako) indarkeria prebenitzeko jardunak garatzeko, gizonetik elkarlana bultzatzeko, adierazpen honetan adierazitakoaren ildo beretik, eta ahalduntzeko eskolak abian jartzeko.**
- **Emakume gazteen aurkako indarkeria matxistari aurrea hartzeko erakunde**
- Fortalecer, anualmente, los recursos económicos y humanos destinados al desarrollo de políticas de igualdad.
- Poner en marcha o continuar impulsando procesos participativos que promueven la participación igualitaria de las mujeres en los rituales simbólicos y festivos, así como en los diversos espacios socio-culturales existentes.
- Crear y/o fortalecer con recursos los espacios comunes destinados a promover el empoderamiento de las mujeres, como las escuelas de empoderamiento, casas de las mujeres y su articulación en red. Esto es, a impulsar que las mujeres cuenten con los instrumentos necesarios para que puedan hacer frente, individual y colectivamente, a la desigualdad, la vulnerabilidad y la violencia machista.
- Comenzar o seguir participando activamente junto con otros municipios en los espacios colectivos puestos en marcha a través de los programas en red y que exigen destinar recursos económicos municipales para el desarrollo de actuaciones que permitan prevenir la violencia contra las mujeres, especialmente, la que enfrentan las mujeres jóvenes e impulsar el trabajo con los hombres, en el sentido señalado en la presente Declaración; y la puesta en marcha de escuelas de empoderamiento.
- Apoyar con recursos técnicos y económicos procesos de trabajo interinstitucionales

arteko lan-prozesuak (Beldur barik programa adibidez) baliabide tekniko eta ekonomikoekin sendotzea.

- Lan kolektiboa abian jartzea eta/edo indartzen jarraitzea, indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeentzako arreta hobetzeko koordinazio-protokolo lokal edo mankomunatuaren esparruan.
- Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakume eta taldeentzako tokiko arretaz bitzua eratzea edo berdefinitzea, indarkeria-adierazpen desberdinei eta indarkeriari aurre egin behar dioten emakumeen premia eta interes desberdinei erantzuteko.

Azkenik, mugimendu feministak egun horretarako antolatutako jarduerara eta mobilizazio guztiekin bat egiteko deia egin nahi dugu. Egunduek horretan kalera irten behar dugu, eta emakume guztiok mota guztietako indarkeria matxistatik aske izan arte borrokan jarraituko dugula oihukatu.

2) Beran, berriki, emakume baten aurka gertatutako indarkeria salatzea.

11.- BERAKO UPN-N JARRERA ONARTEZINA

Jose M. Portuk irakurri du mozioa.

Jon Abrilek edukiarekin ados daudela erran ondoren zera dio:

1. puntuari dagokionez, hori da orain arte egin dena eta, gainera, arautegiak horrela ezartzen du garbi.

2. puntuari dagokionez, galdetu du ea nork egin behar duen murala.

Eta 3. puntuari dagokionez, ez dute ikusten beharrezkoa Udalak plangintza martxan jartzea, herri mugimenduak eskatzea baizik.

Bildu aldetik, erantzun diote erran nahi dutela Udalak berriro murala baimentzea eta

dirigidos a la prevención de la violencia machista que enfrentan las mujeres jóvenes.

- Poner en marcha y/o continuar fortaleciendo el trabajo colectivo en el marco de los Protocolos de coordinación locales o mancomunados destinados a la mejora de la atención de las mujeres que enfrentan la violencia machista.
- Articular o redefinir servicios de atención locales para mujeres y cuerpos que enfrentan la violencia machista que den respuesta a las diversas manifestaciones de ésta y a las diversas necesidades e intereses de las mujeres que la enfrentan.

Por último, hacemos un llamamiento a sumarse a todas las actividades y movilizaciones organizadas en torno a este día por el movimiento feminista. Un día para salir a la calle y gritar que seguiremos luchando hasta que todas seamos libres. Libres de todo tipo de violencia machista.

2) Denunciar el acto de violencia contra una mujer ocurrido recientemente en Bera.

11.- ACTITUD INACEPTABLE DE UPN DE BERA

José M. Portu lee la moción.

Jon Abril tras manifestar su conformidad con el contenido dice lo siguiente:

Respecto al punto 1º, es lo que se ha hecho hasta ahora y, además, está claramente recogido en la normativa.

Sobre el punto 2º, pregunta quién debe rehacer el mural.

Y sobre el punto 3º, no ven la necesidad de que el Ayuntamiento ponga en marcha un plan al respecto sino que sea el movimiento popular quien lo solicite.

Por parte de Bildu se le contesta que quieren decir que el Ayuntamiento autorice nuevamen-

3. puntuari buruz Udalak konprometitzea egiten duten eskaerak bideratzeko.

Santiago Alzugurenek dio abstenitu behar direla zeren eduki horrekin biktimizatu gehiago besterik ez dela lortzen, denak kontrolatu behar direla bileretan eta adostu behar dutela nola funtzionatu osoko bilkuretan.

Horren ondoren, bozketa egin da eta hauxe emaitza:

Aldeko botoak: 7 (3 Aralar eta 4 Bildu).

Aurkakoak: 0.

Abstentzioak: 2 (EAJ/PNV).

Hori dela eta, mozioa onartu dute lehen azaldu diren adierazpenekin, honako testua izanik:

Joan den astean berako UPNko zinegotziak agertutako jarrera eta berako udalean bizi den egoera salatzeko berako Bilduk honakoa adierazi nahi du.

Azken hauteskundeak emaitzen ondoren beran UPNk zinegotzi bat du. Jadanik bi urte daramatzagu udalean lanean eta ongi ikusi dugu zein den UPNk beran lan egiteko duen modua: gezurra, mehatxua eta errespetu falta.

UPNko zinegotzi honek azken egun hauetan egin dituen ekintzak garbi uzten dute legegintzaldi osoan darabilen jarrera. Astearteko osoko bilkuran kaleratua izan zen ohiuka hasi eta gainerako udal ordezkariak ez errespetatzeagatik eta asteazkenean berri, bere kabuz eta udalaren inongo baimekin gabe orain dela hainbat urte egindako murala ezabatu zuen. Mural hau udalaren baimenarekin egina zegoen eta bertze hainbertze bezala herriari bizia eta kolorea

te su realización y en el punto 3º que el Ayuntamiento se comprometa a tramitar las solicitudes que se hagan.

Santiago Alzuguren señala que se van a abstener; con este contenido lo único que se hace es que se sienta más víctima, todos y todas deben controlarse en las sesiones y consensuar cómo funcionar en los plenos.

Tras lo anterior, se realiza la votación con el siguiente resultado:

Votos a favor: 7 (3 Aralar y 4 Bildu).

En contra: 0.

Abstenciones: 2 (EAJ/PNV).

Así pues, aprueban la moción con los matices señalados anteriormente, siendo el texto el siguiente:

A raíz de los hechos sucedidos la semana pasada, que no son nuevos, Bildu de Bera muestra su malestar con la situación que se vive en el Ayuntamiento.

Después de las últimas elecciones UPN tiene un concejal en el Ayuntamiento de Bera y pasados dos años de legislatura hemos comprobado cual es el sistema de trabajo de su concejal Juan Losa, acusaciones falsas, amenazas y faltas de respeto continuas tal y como reflejan las acciones de la última semana.

En el último Pleno celebrado el martes pasado fue expulsado por su comportamiento y falta de respeto hacia el resto de la Corporación municipal. Al día siguiente pintó de blanco un mural de la fachada del Frontón, realizado hace muchos años con el consentimiento del Ayuntamiento. En dicho mural estaba escrita esta frase "Euskal Herria aitortu eta errespetatu". Reconocimiento y respeto, conceptos que UPN de Bera no conoce o no

ematen diote.

UPNko zinegotzi hau udalean dagoenetik ez du honen funtzionamentua trabatuta bertzerik egin. Orain arte udalean alderdi politiko desberdinen arteko diferentziak gotti-betti, beti herriaren alde lan egin da. Juan Losa UPNko zinegotzi honek ez du denborarik galtzen udalean espedienteak ikusten eta informazioa biltzen. Ez, ez da hori bere lana, bere lana giroa gaiztotu, probokatu eta berako udalari eguneroko lanean trabak jartzea bertzerik ez da.

Guzti honegatik berako bildutik erran nahi dugu, aski dela, horrelako jarrerarik udal-txean ezin dela onartu eta honako neurriak hartzea proposatuko dugu hurrengo osoko bilkuran:

- 1. Berriz ere osoko bilkura batean edo bertze batzorde batean ez baditu bere ingurukoak errespetatzen berehala kaleratua izatea, azkeneko osoko bilkuran bezala.**
- 2. Murala berriz ere lehenago zegoen bezala margotzea.**
- 3. Eztegarara frontoiko bertze paretetan edo bertze leku publikoetan mural herrikoiak egiteko plangintza bat martxan jartzea.**

12.- “EUSKARAREN EGUNA” ADIERAZPENA.

Jon Abrilek adierazpena irakurri du eta, aho batez, onartu dute honako testua izanik:

comparte.

Hasta esta legislatura todos los grupos políticos que han coincidido en el Ayuntamiento han sabido resolver sus diferencias y trabajar a favor de Bera. Desde los primeros días de esta legislatura este concejal de UPN no ha hecho más que entorpecer el funcionamiento del ayuntamiento reventando los plenos y faltando al respeto a trabajador@s y resto de corporación sin aportar nada constructivo al pueblo.

Por todo ello el grupo de Bildu expresa de forma rotunda que no va a tolerar esta actitud y que propondrá las siguientes medidas con el fin de que no se repitan estas situaciones.

1. Si el concejal de UPN vuelve a faltar el respeto al resto de participantes en comisiones o en el Pleno debe ser expulsado inmediatamente tal y como ocurrió el último Pleno.
2. Que se restaure el mural del Frontón a su estado original.
3. Poner en marcha un plan para estudiar la realización de diferentes murales tanto en las paredes del Frontón Eztegarara como en otros sitios públicos.

12.- MANIFIESTO “DÍA DEL EUSKERA”.

Jon Abril lee el manifiesto y, por unanimidad, se aprueba siendo el texto el siguiente:

ARNASGUNEAK HEDATUZ, ETORKIZUNA LANDU

Abenduaren 3a, euskararen eguna. Aurten ere, euskararen egunean izango da tarterik ospakizunetarako, hausnarketarako edota aldarrikapenerako. Eta, horretarako, ekitaldi ugari eta askotarikoak antolatuko dira Euskal Herriko luze-zabalean.

Lehenik eta behin, euskararen egunak ospatzeko egun bat izan behar duelakoan gaude. Izan ere, euskara maite dugunok badugu zer ospatu 2013ko abenduaren 3an. Euskara bizirik da, badiu hiztunak, eta etorkizuneko ateak zabalik ditu oraindik ere. Baldintzarik gogorretan ere, aurrera egin du euskarak, eta horrek etorkizunarekin baikor izateko arrazoiak ematen dizkigu.

Geroa euskaraz eraikitzeke, ordea, garrantzitsua da zertan ginen jabetu eta egun zein egoera daukagun ikustea. Eta, gaur egun daukagun egoerari erreparatzen badiogu, zonaldearen arabera, oso egoera soziolinguistikoko ezberdin eta kontrajarriak dauzkagula ohartuko gara. Oraindik ere, arrotz dabil euskara bere herriko hainbat eremutan, aitortza ofizialik gabe eta lege babesik gabe. Aldiz, nagusi da gure herriko beste hainbat eremutan.

Horregatik, tokiko errealitateak abiatutako aurrerapausoak bultzatu behar ditugu. Herriz herri euskararen arnaguneak hedatuz landu behar dugu etorkizuna. Gure udalerrria euskararen arnagunea da, zorionez; beraz, lehenik eta behin ezinbestekoa zaigu dagokigun aitortza ofiziala aldarrikatzea. Horrekin batera, gune hauen erabateko normalizaziorako beharrezko ditugun hizkuntza politika ausartak garatzeko baliabideak exijitzea dagokigu, legea bera ere beharren neurrira egokituz.

Udalerrri euskaldunetan biztanleen %70ek baino gehiagok daki euskaraz, eta oro har, euskaraz bizi gara bertako herritarrok. Udalerrri euskaldunek euskararen arnagunerik zabalena osatzen dute. Eta hizkuntza batek, biziko bada, nagusi izango den eremuak behar dituzenez ezinbestean, udalerrriok funtzio garrantzitsua dute euskararen geroan.

Horregatik, garrantzitsua da udalerrri euskaldunetako administrazioak, batetik, gaiari beharrezkoa zaion garrantzia ematea; eta herritarrok, bestetik, euskararen geroan jada jokatzeko dugun paperaz jabetu eta euskararen inguruan sentsibilizatzea. Gure herriak erreferentziazkoak dira euskarari dagokionez, eta ondorioz, baita bertako herritarrek ere. Gune hauetan egiten diren hizkuntza politikak eta norbanakook egunerokoan ditugun hizkuntz ohiturek, jarrerek eta joerek eragin zuzena dute euskararengan.

Gure herritik abiatuta, herritar soilen inplikazioaz, elkarte eta eragileekin bat eginez eta instituzio publikoen laguntzaz pauso sendoak eman ditzakegu euskararen arnaguneak zabaltzeko. Beratik inguruko herrietara, Beratik Euskal Herrira.

Berako Udalak, 2013ko abenduaren 3an, euskararen egunean, honako adierazpen hau plazaratu nahi du:

- Beran euskara nagusi denez, hizkuntza politika ausart eta aurrerakoiak garatzeko baldintzak daude. Udalerrri euskaldunok lege babesa eta baliabideak behar ditugu aurrerapauso sendoak eman ahal izateko.
- Udalerrri euskaldunek euskararen arnagunerik zabalena osatzen dute. Eta, beraz, ezinbestekoa da Bera bezalako udalerriek euskararen geroan jokatzeko duten paper garrantzitsua aitortzea.

- Gure herria euskarari dagokionez erreferentziazko udalerrria dela jakinda, konpromisoa hartzen dugu Beran garapen sozioekonomiko eta soziokulturalak zein bestelako proiektuek sor dezaketen eragin soziolinguistikoa kontuan hartzeko.
- Euskararen aurkako erasoekin amaitu behar da. Hainbat udalek onartutako hizkuntz irizpideen aurka jarritako helegiteek, esaterako, kalte nabarmena egiten diote euskararen normalizazioari.
- Berako Udalak, herriko eragile eta norbanakoekin elkarlanean, euskararen aldeko lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen du.

13.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-

Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:

- 1) Bandoak: B27/2013tik B28/2013ra.**
- 2) Ebazpenak: 2013ko urriaren 8ko 207. ebazpenetik 2013ko azaroaren 5eko 233.era arte.**

14.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEEN KONTROLA.

Ez dira burutu.

Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 20:05etan.

O.E. BEHIN BEHINEKO ALKATEA
V.B. EL ALCALDE ACCIDENTAL
Jon Abril Olaetxea

13.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-

Quedan enteradas y enterados de los siguientes bandos y resoluciones de Alcaldía:

- 1) Bandos: del B27/2013 al B28/2013.
- 2) Resoluciones: De la resolución nº 207 de 8 de octubre de 2013 a la nº 233 de 5 de noviembre de 2013.

14.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

No se producen.

No habiendo más asuntos, la Alcaldesa levanta la sesión a las 20:05 horas.

IDAZKARIA/ LA SECRETARIA
Pilar Chueca Intxusta